

## Sarrera. Zergatik Zaintza sarea Anoetan?

Guztiok, gure bizitzan zehar, era batera edo bestera, zaintzak behar ditugu.

Bilakaera demografikoak (jaiotze tasa baxuak, zahartze tasa altuak, bizi itxaropena luzatzeak...), komunitateko loturen galerak, individualizaziorako joera orokortuak edota familia ereduaren eraldaketak besteak beste, gizartea zaintzen krisi batean murgiltzea eragin dute ordea. Herritarrok ditugun zaintza beharrei erantzuteko ezintasuna nabaria da eta ondorioz zaintza eredu berri baten inguruan herri bezala hausnartu eta elkarrekin zaintzen eraldaketarako prozesu bat abiatzea ezinbestekoa da. Komunitatea, instituzio publikoak eta eragileak saretu eta elkarrekin norantza berean lanean jarriko dituen prozesu bat alegia.

## Zer da zaintza sare bat?

Zaintzen eraldaketa prozesua gidatuko duen lankidetzazko gobernantza eredu berria da zaintza sarea. Herri, auzo edo komunitate batean, guztien parte hartzetik osatzen den zaintza sarea, alegia. Behar desberdinak dituzten pertsonak barne- bilduko dituen eta guztiak eskubide osozko herritar bezala kontutan hartuko dituen.

Izan ere, zaintzak erdigunean jarriko dituen herri zaintzaile bat nahi badugu nahitaezkoa izango da gaur egungo zaintzen gaineko ulerkera eta antolaketa zalantzan jarri, zaintzen gaineko erantzukizuna partekatu eta bakoitzak beretik konpromisoak hartzea. Horregatik, *Anoeta, elkar zainduz* ekimenak zaintzen inguruan zeresana duen herritar, eragile sozial, erakunde publiko (gizarte zerbitzuen sistema, osasun sistema...) eta entitateak artikulatzea bilatuko du horretarako espreski sortuko diren espazio ezberdinen bidez. Zaintza Mahaia eta Zaintza Topaketak kasuko.

## Zer eta nola egingo dugu?

Zaintza eredu berri bat bultzatzeko garrantzitsua izango da zaintzen ulerkera eta antolamendu tradizionalaren inguruko hausnarketatik abiatzea. Egungo ereduaren gainean birpentsatuz eta berau berrantolatuz bakarrik gauzatu daitekeelako benetako eraldaketa. Honek, zaintzek duten garrantzia sentsibilizatzear gain, zaintzaileek egiten duten lana azpimarratu eta zainduak diren pertsonen zaintzak modu duinean eta pertsonalizatuagoan jasotzea ahalbidetuko du.

Honenbestez, udalak hiru lan lerrotan gauzatuko den prozesu bat abiatuko du:

1. Proiektuaren koordinazio orokorra eta lankidetzazko gobernantza ereduaren definizio eta dinamizazioa (Zaintza eredu publiko-komunitarioa). Zaintza eredu berri batera bidean, herritarrak eta eragile mota ezberdinak artikulatuko dituen lankidetzazko gobernantza eredu berri bat jarri nahi da martxan, zaintza sarea deritzona gañur egun. Lan lerro honen baitan, zaintza sarea gorpuztuko duten parte hartze espazio ezberdinak dinamizatuko dira: Talde motorra, Zaintza Mahaia eta Zaintza Topaketak.
2. Errealitatearen diagnostikoa: Herri Hausnarketa deritzona, hau da, diagnostiko kualitatiboa.
3. Zaintzen eraldaketarako herri hausnarketa eta Zaintza Plan baten eraikuntza prozesua. Udaletik fase ezberdinetan banatuko den parte hartze prozesu bat jarriko da abian. Lehen pausua, zaintzen ulerkera eta antolaketaren inguruko ikuspegi eta diagnostiko partekatu bat sortzeko herri hausnarketa bat bultzatzea izango da. Prozesu honetan ahalik eta eragile eta herritar gehienek parte hartzea bilatuko da eta abiapuntu



## Anoeta, elkar zainduz DISKURTSO ELKARBANATUA



amankomun bat ezartzeaz gain, herri mailako beharrak, elkarlan aukerak, ahuleziak eta aukerak identifikatzeko ere balioko du. Hausnarketa prozesua behin bukatuta, herriarekin partekatuko dugu, inguruko esperientzia inspiragarriak bertan ere plazaratuz Zaintza Topaketa irekietan. Azkenik, Zaintza planaren ko-diseinu prozesu bat garatuko da, zaintza ereduaren eraldaketarako bide-orri partekatua elkarrekin diseinatu eta martxan jartzeko. Ezinbestekoa den bezala, hau ere herriarekin partekatuko da ondoren antolatuko diren Zaintza Topaketa irekietan.